



KARRIKAN BERRIRO

2025-2026ko DEIALDIA

Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak kofinantzatutako proiektua

ZER DA KARRIKAN?

KARRIKAN Kaleko Arteetan Euskal Herriko artista berrien sorkuntza eta hedapena bultzatu nahi dituen plataforma bat da. Aurten, Karrikan Berriro proiektuak Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen sostengua eta lankidetzatitu, eta, hortaz, bere mugaz gaindiko izaera sendotu eta handitu egiten da.

Karrikaren partaideak honako hauek dira:

Bazkideak: Kalealdia (Bilbo), Kaldearte (Vitoria-Gasteiz), Maiatzeko Antzerki Jaialdia (Hendaia), Umore-Azoka (Leioa), Antsoain udalerrria eta Karrikan Elkarteak.

Bazkidetutako jaialdiak eta udalerrriak: Arrigorriaga eta Lezo herriak, Kalerki (Zarautz), Kaleka (Ikekitio) eta Ribera en Danza Jaialdia (Nafarroa).

Bazkidetutako egoitzak: Dantzagunea (Errenteria), Garaion-Sorgingunea (Otaza, Araba) eta Zirkodomo (Bagatza, Bizkaia).

Zer babestu nahi dugu?

Plataformak Euskal Herrian (7 probintzia historikoetan) kokatuta dauden eta espazio publikoan jarduten duten kolektibo, artista eta konpainia **berrien sorkuntza-lan originalak** babestu nahi ditu –kolektibo, artista eta konpainia horiek profesionalak izan daitezke, edo profesionalizatzeko bidean egon-.

Balio berezia emango zaio “kaleko arteen” nozioari.

“Zuzeneko ikuskizunaren” diziplina guztiak onartuko dira: antzerkia, dantza, zirkoa, diziplina anitzekoa, etab.

Nolanahi ere, lehentasuna emango zaie testurik gabeko edo euskarazko proiektuei.

Azkenik, formatu txikiko edo ertaineko ikuskizunak baloratuko dira.

Deialdi honen helburua da **konpainia bat** aukeratzea, bere **sorkuntza-prozesua 2024ko urritik eta 2026ko maiatzera bitartean garatu** dezan, deialdi honetan jasotako laguntzek bultzatuta, **ikuskizuna Karrikan-en bazkide diren edo berarekin bazkidetuta dauden jaialdietan estreinatzeko, 2026ko maiatzetik urrira bitartean.**

AUKERAKETARAKO IRIZPIDEAK

Babestu beharreko proiektuak aukeratzekoan, honako hau izango da erabakigarria:

- Planteamendu artistikoaren originaltasuna eta exigentzia
- Proiektuaren bideragarritasuna
- Laguntza-deialdiaren egutegia errespetatzea

- Artisten edo konpainiaren bizilekua (Euskal Herriko zazpi probintzia historikoak)
- Zuzendari profesional baten laguntza edo “kanpo-ikuspegia”
- Kalearen garrantzia proposamen eszenikoaren espazio gisa
- Publikoekin harremanak izateko prozesuaren baitan planteatutako bitartekotzen lotura

LAGUNTZAK

Karrikan-eko bazkideek aukeratutako proiektua babesteko konpromisoa hartzen dute, modu honetan:

SORKUNTZARAKO LAGUNTZAK

- **Bi prestakuntza-saio**, horietako bat kudeaketa, administrazio, banaketa eta salmentari buruzkoa, eta bestea frantziar errealitatea, Iparraldeko ekosistema eta bere diferentzia administratiboei buruzkoa. Gehi 500 €-rainoko diru-poltsa bat (zergak barne sartuta) beraren interesekoak diren beste prestakuntza-saio batzuetara joateko, betiere faktura eskuratzen bada eta Karrikan Elkartearen aldetik berresten bada.
- **Bi sorkuntza-egonaldi**, horietako bat Hendaian eta bestea bazkidetutako espazioetako batean, 800 €-ko diru-poltsa estra batez (zergak barne sartuta) eta 100 €-rekin (zergak barne sartuta) bertara joateko bidaietarako.
- **1650 €-ko diru-poltsa bat** (zergak barne sartuta, **kanpo-begirada baterako**, sorkuntza-lanari kanpotik laguntzen dion pertsona edo kolektiboarentzat, eta **guztira 400 €-raino** (zergak barne sartuta) pertsona edo talde horren bidai eta alojamendu-kostuetarako eta dietetarako.
- **Sorkuntzarako laguntza, 4300 €-koa** (zergak barne sartuta), 2025ko uztailearen aurretik, eta guztira **4200 €** (zergak barne sartuta), bitartekotza-jarduerak dituzten egonaldietarako, 2025eko uztailetik 2026ko maiatzera bitartean.

- **Ordaindutako bitartekotza-jarduerak.** Bazkidetutako espazioetan garatu beharreko 3 jarduera, 500 €-ko baliokoak (zergak barne sartuta).

IKUSKIZUNA ERAKUSTEKO LAGUNTZAK

- Sortutako ikuskizuna 2026ean erakusketako kontratazio batez, 11 egunerako, bakoitza 1800 €-koa (zergak eta gastuak barne sartuta), leku hauetan: Leioa, Hendaia, Bilbo, Vitoria-Gasteiz, Antsoain, Lekeitio, Zarautz, Lezo, Zirkodomo, Arrigorriaga eta Ribera en Danza (azken hori aukeratutako piezaren modalitatearen arabera). Data horiek 2026 maiatza eta urria bitartekoak izango dira.

KOMUNIKAZIORAKO LAGUNTZAK

- Ikuskizuna Karrikan-en webgunean eta bere komunikazio-ekintzetan bistaratu.
- Promozio-bideo bat sortuz, guztira 500 €-ko kostuarekin (zergak barne sartuta)
- Aukeratutako proiektua prentsa-oharretan, ekitaldi publikoetan (konpainiarekin hitzartu beharrekoak) eta www.karrikan.eu proiektuaren webgunean.

HAUTAGAIEN KONPROMISOA

- Kalerako proiektu artistiko berri bat aurkeztea, euskaraz edo testurik gabe, **gutxienez 20 minutukoa eta gehienez 50 minutukoa, 2026ko maiatzean estreinatzeko.**
- Karrikan-en bazkide diren edo berarekin bazkidetuta dauden jaialdi edo programen sasoietan eskuragarri egotea, 2026ko maiatza eta urria bitartean.
- Deialdian derrigorrezkoak diren ekintzak egitea, laguntza eman eta hurrengo 18 hilabeteetan, bazkideen espazioetan egin beharreko sorkuntza-egonaldiak barne sartuta.

- Aurretik aukeratua izanez gero, **2024ko urriaren 16an eskuragarri egon beharko du** bere proiektuaren aurkezpen bat bazkideei eta bazkideetuei Dantzagunean egiteko (Errenteria).
- Fakturak jaulkitzeko eta jasotako laguntzaren zenbatekoa fakturen bidez justifikatzeko aukera izatea. Baldintza hori bete ezean, proiektuak exijitu diezaioke onuradunari beka osoa edo beraren zati bat itzul dezala.
- Bazkideekin kolaboratzea prozesuaren jarraipenean (bilerak, galdetegiak, ebaluazioak, etab). Baldintza hori bete ezean, proiektuak exijitu diezaioke onuradunari beka osoa edo beraren zati bat itzul dezala.
- Ikuskizunarekin lotutako komunikazio-euskarri guztietan jartzea Euroeskualdearen Karrikan-en eta proiektuko bazkideen logoak, eta baita “Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak konfinantzatutako proiektua” aipamena ere derrigorrez jartzea, proiektuaren iraupen-aldi osoan, eta beraren webgune, bideo edo dossierrean ere bai.
- Bazkideen jaialdien datak aldatu ahal izango dira 2026rako; aldaketa horiek aukeratutako konpainiei jakinaraziko zaizkie, behar den bezala, konpromiso guztien datak mantentzen saiatuz. Ezarritakoa bete ezean, Karrikan-en kideek laguntza osoa edo haren zati bat itzul dezala eskatu ahal izango diote onuradunari.

HAUTAGAITZEN AURKEZPENA

Bete behar den formularioaz gain, laguntza eskatu nahi duten proiektuak formatu digitalean (gehienez 3 MB) aurkeztu beharko dira, eta gutxienez honako hau sartuko da:

- Proiektuaren aurkezpen zehatza.
- Talde artistikoaren aurkezpena, desiratutako kanpo-begirada eta proposatutako bitartekotza-jarduera barne sartuta.
- Behin-behineko ekoizpen-aurrekontua.

- Prestakuntzarako kezken zerrenda.

Hautagaitzaren [formularioa](#) betetzea, modalitatearen arabera, www.karrikan.eu webgunean.

Zalantzarik izanez gero, helbide honekin kontaktatu: karrikan.kudeaketa@gmail.com

KARRIKANen Idazkaritza Teknikoa:

Jemima Cano (+34) 622.790.220

Eider Zaballa (+34) 669.710.117

EGUTEGIA

- 2024ko abuztuak 2: Deialdiaren irekiera.
- 2024ko irailak 22: Deialdiaren itxiera (gauerdian).
- Urriak 9: Aurretiko aukeraketa. Egun berean jakinarazten zaie.
- 2024ko urriak 16: Zitak aurretik aukeratutako finalistekin, proiektuak Dantzagunen aurkezteko (Errenteria), eta proiektuen azken aukeraketa. Egun berean jakinarazten zaie.
- 2024ko urria. Zita aukeratutako konpainiekin, jarduerak, egutegia eta bestelakoak zehazteko eta parte hartuko duten jaialdien datak jakinarazteko. Data urriaren 16ko azken aukeraketaren ostean zehaztuko da.
- 2024ko urriaren eta 2026ko apirilaren artean: Sorkuntzarako Laguntzak.
- 2026ko maiatzaren eta urriaren artean: Ikuskizunen erakustaldia plataformako kideen ekitaldietan.

KARRIKAN-EN BAZKIDEAK

- Bilboko Udala (Bizkaia)
- Leioako Udala (Bizkaia)
- Gasteizko Udala (Araba)
- Hendaia Udala (Lapurdi)
- Antsoaingo Udala (Nafarroa)
- Karrikan Elkarte

KARRIKAN-EKIN BAZKIDETUTAKOAK

- Arrigorriagako Udala (Bizkaia)
- Lekeitioko Udala (Bizkaia)
- Lezoko Udala (Gipuzkoa)
- Zarauzko Udala (Gipuzkoa)
- Dantzagunea (Gipuzkoa)
- Garaion Sorgingunea (Araba)
- Zirkodomo (Bizkaia)
- Ribera en Danza (Nafarroa)

KARRIKAN-EK 2016AZ GEROZTIK AUKERATUTAKO KONPAINIAK

2016-2017: Cía Eva Guerrero - El fin de las cosas

2017-2018: Mystérieuses Coiffures -Xori gizonaren elezaharra - La légende de l'homme oiseau

2017-2018 : Amaia Elizaran - Block

2018-2019: Collectif Eflirkoa - Echos

2019-2020: Berdinki - Mikra

2019-2020: Arriera - Edén

2022-2023: Piszifaktoria Ideien Laborategia - Asfaltoaren azpian, euria

2022-2023: Batcharte Dantza Kia - Sor(tu.e)gina

2023-2024: DAB - Noued

2024-2025: Garazi Egiguren - Argilunak